Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (III)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Mondragon Unibertsitatea
mitxel_kaltzakorta@huhezi.edu

Abstract

The author proposes to examine a number of texts written in Bizkaian. Since there is not much to correct about the grammar of the texts (grammar mistakes are scant), this contribution focuses primarily on the textual level, particularly the so-called thematic progression. That is, the author looks at the thematic progression from paragraph to paragraph, from sentence to sentence, from the title to the first paragraph, and within each sentence (from start to end).

Laburpena

Egileak arteztu gura ditu hainbat testu bizkaitarrez idatziak. Testuok, zer zuzendu gitxi izango dabenez gramatika arloan (akats gitxi egiten dira-eta), ardatz izango dabe arlo testuala, batez be, progresino tematikoa dalakoa. Zehatzago esateko, jorratuko da zelan egiten dan progresino tematikoa paragrafotik paragrafora, perpausetik perpausera, titulutik lehenengo paragrafora eta perpaus barruetan (hasikeratik amaieraraino).

Keywords: (topic of discourse), rheme, thematic progression, coherence, cohesion, textual level, neutral order, non-neutral order, focus, neutral focus, emphatic focus, thematization, topicalization

Gako hitzak: temea (mintzagaia), remea, progresino tematikoa, koherentzia, kohesinoa, arlo testuala, ordena neutroa, ordena ez neutroa, galdegaia (fokoa), galdegai neutroa, galdegai enfatikoa, tematizazioa, topikalizazioa

0. Sartaurrea

Lehenengo artikuluan, sartaurrean, aditzen emon genduan, lehenengo, zer formula edo eskema daukan progresino tematikoak, hau da, “tema-rema” egiturea (ordena horretan); bigarren, zer dan kontzeptu bakotxa; eta, hirugarren, zelako elementuak izan leitekezan tema (eta adibide batzuk emon genduzan).

Hirugarren artikulu honetan (azkenaurrekoa), tema kontuan sakonduko dogu sartaurre honetan (eta hurrengo puntuan, ohi legez, testu batzuk arteztuko ditugu bizkaieraz idatziak). Ez dago argi, ordena neutroa adierazoteko euskeraz, zer hurrenkeratan erabili behar diran oinarrizko osagaiak (subjektua, aditza eta osagarria). Guk hurrenkera bi ipiniko ditugu (SOA eta SAO):

- Amak aitari zapata barriak erosi deutsoz alboko dendan
- Amak aitari erosi deutsoz zapata barriak alboko dendan

Gaur egun, lehenengoa lehenesten da (zer osagarria -zapata barriak- aditz aurrean), baina tradizinoan bigarrena erabilten da gehien (aitaturiko osagarria dagoala aditz ostean), baina bietan temea ama da (eta gainerakoa remea). Ordena bata edo bestea dalarik neutroa, temea (lehenengo lekuan) beti da subjektua.

Baina temea, subjektuaz gain, izan leiteke edozein elementu-edo, eta orduan gertatu leitekez beste hurrenkera batzuk (neutroa ez bestelakoak):

OSAG. ZUZENA

- **Zapata barriak** amak erosi deutsoz aitari alboko dendan

OSAG. ZEHARKAKOA

- **Aitari**, zapata barriak erosi deutsoz amak alboko dendan

ADITZA

- **Erosi**, zapata barriak erosi deutsoz amak aitari alboko dendan

OSAG. ZIRKUNSTANTZIALA

- **Alboko dendan**, zapata barriak erosi deutsoz amak aitari

Temok baltzez dagoz adierazota, laurok mota banatakoak dirala, eta ezin esan orain perpausok ordena neutroan dagozala eratuta. Holakoetan, hau da, perpausa ez darabilgunean hurrenkera neutralean, edozein osagai-edo izan leiteke temea, eta osagai hori eroatea lehenengo lekura, tema bihurtzea, horretxeri esaten jako *tematizatzea* (edo *topikalizatzea*).

Baina subjektua bera be tematizau leiteke (jakina, ordena ez neutroan erabili behar):

Nik horixe maite dut

 © Mendebalde Kultura Alkartea, 2010

Hor *horixe* fokalizauta (galdegaituta) dago, foko enfatikoa da (ez foko neutroa). Ez da nahastu behar perpaus hori beste honeekaz (ordena neutroan erabiliak):

- Nik hori maite dut
- Nik maite dut hori

Orain ikusi daiguzan tematizazino mota gehiago. Badirudi gramatika kategoria guztiak tematizau leitekezala (baltzez seinalizau ditut):

Izenak:

- ***Ogia*** kilo bi jan dot eguerdian
- ***Ardoa*** litro bi edaten dau egunero

Adjektiboak:

- ***Polita*** Miren da
- ***Ederra*** horixe da

Adberbioak

- ***Ondo*** urlia bizi da
- ***Gustura*** Maribigaz egoten naz

Aditzak

- ***Igon***, Realak igongo dau
- ***Jan***, Kepak jaten dau

Ikusi ditugu hainbat adibide, non kategoria gramatikalak eta kategoria sintatikoak tema bihurtu ditugun. Gramatika kategoriak tematizau leitekez errepikauta be, gitxienez birritan:

Izenak

- ***Tanto-tantoak*** Irujok egiten ditu (pilotan)
- ***Gol-gola*** Maradonak egin eban

Adjektiboak:

- ***On-ona*** Jon da
- ***Jakintsu-jakintsua*** urlia da

Adberbioak

- ***Txarto-txarto***, urliaren ezkontzan pasa neban
- ***Ondo-ondo***, Lekeition bizi gara

Aditzak:

- ***Hil-hil***, ez zan hil
- ***Jokatu-jokatu***, Mesik jokatzen dau (futbolean)
- ***Bete-bete-bete***, BEC bete zan bertsolari finalean

Bestalde, temak agertu leitekez ia gura adina; baita konplexuak be. Hona hemen adibide batzuk:

- ***Gaur, eguraldia*** zoragarria egiten dau
- ***Atzo, Bilbon, euria*** sendo/ugari egin eban
- ***Horrek, jan***, 10 pastel be jango leukez
- ***Horrek, ardoa*** litro bi be edaten ditu egunero
- ***Uda ondo pasa***, Lekeition pasetan da
- ***Pilotari ona* izan**, Irujo da
- ***Atzo, eguerdian, Bilbon, Alde Zaharrean, Ertzaintzak*** jitano bi atxilotu ebazan

1. Testuak artezten

Igaro gaitezan testu bizkaitar idatziak zuzentzera, zortzi, zehatz esateko, danak paragrafo bakarrekoak.

1.1. 1. testua

Getxoko Egizu euskera alkarteak Sendi eta Berbalaguna egitasmoak jarriko ditu martxan

Zemenditik aurrera, gurasoek euskerea erabiltea eta familia euskerazko jardueren inguruan alkartzea helburu dauen Sendi egitasmoak hainbat tailer antolatu ditu eta, hile horretan baita, Berbalaguna egitasmoari esker euskeraz berba egiteko aukerea izango dabe mintzapraktika landu gura dabenek.

Titulua ondo dagoalarik, gure ustez, oratu deiogun testuari, eta bertan aztertu lehenengo zatia. Honako hau:

> Zemenditik aurrera, gurasoek euskerea erabiltea eta familia euskerazko jardueren inguruan alkartzea helburu dauen Sendi egitasmoak hainbat tailer antolatu ditu (…)

Zati horrek, hasikerako denpora osagarria (*Zemenditik aurrera*) kenduta (zeina dan temetariko bat), honako tema-remak daukaz:

Tema1–[Rema1a+Rema1b]

- Tema1: Sendi egitasmoak
- Rema1a: gurasoek euskerea erabiltea eta familia euskerazko jardueren inguruan alkartzea helburu dau
- Rema1b: hainbat tailer antolatu ditu

Perpausaren lehenengo atal hori (barriro txertauta denpora osagarria) honako formatoan landuko dogu (rema1a hori aposizinoan dago):

Tema1, Rema1a, Rema1b

> Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, [ZER helburu dau], hainbat tailer antolatu ditu (…)

Eskema hori honan hezurmaminduko litzateke, baliabide batzuk erabilita:

Erlatibo apositiboa (*-ena*):

- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, [gurasoek euskerea erabiltea eta familia euskerazko jardueren inguruan alkartzea **helburu dauanA**], hainbat tailer antolatu ditu (…)
- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, [**helburu dauana** gurasoek euskerea erabiltea eta familia euskerazko jardueren inguruan alkartzea], hainbat tailer antolatu ditu (…)
- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, [helburu dauana gurasoek euskerea erabiltea eta familia **alkartzea** euskerazko jardueren inguruan], hainbat tailer antolatu ditu (…)

Zeinismoa (zein bait- / zein -en)

- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, [ZEINAK helburu dauaN gurasoek euskerea erabiltea eta familia alkartzea euskerazko jardueren inguruan], hainbat tailer antolatu ditu (…)

-elarik menderagailua

- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, [helburu dauaLARIK gurasoek euskerea erabiltea eta familia alkartzea euskerazko jardueren inguruan], hainbat tailer antolatu ditu (…)

Aztertu daigun testuaren bigarren partea:

- (…) eta, hile horretan baita, Berbalaguna egitasmoari esker euskeraz berba egiteko aukerea izango dabe mintzapraktika landu gura dabenek.

Lehenengo parteko hariari jarraituz, emoten dau hasikerako *baita* barik hobeto dagoala *bertan*. Gainera, badirudi azkenengo partean, *be* bat be beharrezkoa dala:

- (…) eta, hile horretan BERTAN, Berbalaguna egitasmoari esker euskeraz berba egiteko aukerea izango dabe mintzapraktika landu gura dabenek (BE).

Hasikerako zatitxu bien ostean (*eta, hile horretan bertan, Berbalaguna egitasmoari esker*), honan dago eratuta progresino tematikoa:

- Rema2: euskeraz berba egiteko aukerea izango dabe
- Tema2: mintzapraktika landu gura dabenek (be)

Atzekoz aurrera dagoanez progresinoa, ipini daigun taxuzko ordenan tema-rema horreek (baltzez temea):

- (…) eta, hile horretan bertan, Berbalaguna egitasmoari esker **mintzapraktika landu gura dabenek (be)** euskeraz berba egiteko aukerea izango dabe.

Baina rema2 horretan tema-rema bana dagoz, atzekoz aurrera egon be:

- Rema3: euskeraz berba egiteko
- Tema3: aukerea

Sekuentziau daigun egoki progresino tematikoa (baltzez temea):

- (…) eta, hile horretan bertan, Berbalaguna egitasmoari esker mintzapraktika landu gura dabenek (be) **aukerea** izango dabe euskeraz berba egiteko.

Testuaren parte biak bat eginda, hona hemen emoitzetariko bat (lehenengo, zeinismoa erabiliko dogu baliabidetzat)

- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak, ZEINAK helburu dauaN gurasoek euskerea erabiltea eta familia alkartzea euskerazko jardueren inguruan, hainbat tailer antolatu ditu eta, hile horretan bertan, Berbalaguna egitasmoari esker(,) mintzapraktika landu gura dabenek (be) aukerea izango dabe euskeraz berba egiteko.

Azkenengo aldaera horretan, aurrekoetan ez legez, koma bat txertau dogu aukeran (halan hobeto dagoala uste dogu). Bestalde, zeinismodun sekuentzia (lehenengo zatian) lar luzea danez, errezago irakurriko litzateke deseginez gero, eta ordainetan erabilita *-enez* menderagailua edo *eta* juntagailua:

- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak helburu dauANEZ gurasoek euskerea erabiltea eta familia alkartzea euskerazko jardueren inguruan, hainbat tailer antolatu ditu eta, hile horretan bertan, Berbalaguna egitasmoari esker(,) mintzapraktika landu gura dabenek (be) aukerea izango dabe euskeraz berba egiteko.
- Zemenditik aurrera, Sendi egitasmoak helburu dau gurasoek euskerea erabiltea eta familia alkartzea euskerazko jardueren inguruan, ETA (horregaitik) hainbat tailer antolatu ditu eta, hile horretan bertan, Berbalaguna egitasmoari esker(,) mintzapraktika landu gura dabenek (be) aukerea izango dabe euskeraz berba egiteko.

1.2. 2. testua

Udal euskaltegiak finantzietako sistema barria onartu dau Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen dituan agindua onartu dau bart.

Hasi gaitezan titulutik bertatik. Jakinda temea *Eusko Jaurlaritzak* dala, zergaitik ez ipini aurrerengo?

Eusko Jaurlaritzak Udal euskaltegiak finantzietako sistema barria onartu dau

- Tema1: Eusko Jaurlaritzak
- Rema1: Udal euskaltegiak finantzietako sistema barria onartu dau

Hobetu leiteke progresino tematikoa rema1 horretan, titulua ez da-eta gura besteko errez irakurten aditza dagoan lekuan dagoalako, atzenean. Rema horren barruan bigarren tema-remak dagoz, iruntzitara egon be:

- Rema2: Udal euskaltegiak finantzietako
- Tema2: sistema barria

Ipini daiguzan tema-remok hurrenkera egokian, progresino tematikoaren legean. Hona hemen zelan geratuko litzatekean perpaus osoa:

Eusko Jaurlaritzak sistema barria onartu dau udal euskaltegiak finantzietako

- Tema1: Eusko Jaurlaritzak
- Rema1: (Udal euskaltegiak finantzietako sistema barria) onartu dau
- Tema2: sistema barria
- Rema2: Udal euskaltegiak finantzietako

Oratu deiogun testuari berari:

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen dituan agindua onartu dau bart.

Hona hemen testu horretan (perpaus bakarrekoa) tema-remak:

- Tema1:Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak
- Rema1:Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen dituan agindua onartu dau bart.

Erreparau, irakurlea, rema1 horrek zelako progresino tematikoa daukan barruan:

- Tema2: Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek)
- Rema2: 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen dituan agindua onartu dau bart.

Baina rema2 horren barruan be beste tema bat dago eta beste rema bat, baina alderantzizko hurrenkeran:

- Rema3: 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen dituan agindua onartu dau bart
- Tema3: (***harek***: inplizito dago aditz laguntzailean (*dau*))

Tema3 hori (inplizito aditz barruan) rema3-aren ostean dagoanez, aurrean ipini behar dogu (parentesi barruan), isilean ipini be, baina rema3-an aurrerengo ipinita aditza-eta (baltzez):

- Tema3: (HAREK)
- Rema3: **onartu dau bart** 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen dituan agindua

Rema3 horren barruan beste tema-rema batzuk dagoz (okerreko ordenan egon be, atzekoz aurrera)

- Rema4: 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen ditu
- Tema4: agindua

Tema-rema horreek beharko leukee ordena honetan:

- Tema4: agindua
- Rema4: 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen ditu

Testu osoak, dakigunez, honako eskemea beharko leuke:



Hona hemen eskema hori edukiz beteta (baina lotura faltan parteen artean). Aurreratu doguz baltzezko informazino bi, biak temak (tema4: *agindua* eta tema3 (alde esplizitoa): *onartu dau bart*):

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak **agindua onartu dau bart,** Udal Euskaltegiek

edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak arautzen ditu.

Hor, azken atala-eta dagoz lotzeko. Egin daiguzan loturok ditugun baliabideak erabilita:

Erlatibo apositibo bidez (*-ena*):

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak agindua onartu dau bart**,** Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak **arautzen dituanA**.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak agindua onartu dau bart, **arautzen dituanA** Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko bete beharreko baldintzak.

Erlatibo bat bihurtuta zehar-galdera:

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak agindua onartu dau bart, arautzen dituana **ZEINTZUK baldintza bete behar dabezeN** Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) 2009-2010 ikasturterako diru-laguntzinoak jasoteko.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak agindua onartu dau bart, arautzen dituana zeintzuk baldintza bete behar dabezen Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) diru-laguntzinoak jasoteko **2009-2010 ikasturterako**.

Erlatibo apositiboaren ordez erabili leiteke zeinismoa be:

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak agindua onartu dau bart, **ZEINAK** arautzen dituaN zeintzuk baldintza bete behar dabezen Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) diru-laguntzinoak jasoteko 2009-2010 ikasturterako.

Juntagailua ere (*eta*) erabili leiteke:

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak agindu BAT onartu dau bart, **ETA bertan/han** arautzen DIRA zeintzuk baldintza bete behar dabezen Udal Euskaltegiek edo euren menpeko entidadeek (udal titularidadea daben euskaltegi publikoek) diru-laguntzinoak jasoteko 2009-2010 ikasturterako.

Ikusten dogunez, juntagailua txertau, txertau dogu, baina beste aldaketa bi be egin doguz:

- -A artikulua barik BAT
- DITU aditza barik DIRA

Guk atzenengo aldaera horixe dogu nahien edo guren.

1.3. 3. testua

Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia, zuzenean finalaurrekoetara

Uztaritzen jokatu da asteburuan Bertsolari Txapelketa Nagusiaren laugarren final laurena eta bertan 669 puntugaz zemendiaren 7an Bergaran jokatuko dan finalaurrekoetarako txartela eskuratu dau Beñat Gaztelumendi donostiarrak. Zarautzeko saioan, barriz, Iker Zubeldia izan da nagusi.

Laga deiogun alde batera tituluari (ondo dago eratuta-eta, guk uste), eta oratu testuari, lehenengo perpausari:

Uztaritzen jokatu da asteburuan Bertsolari Txapelketa Nagusiaren laugarren final laurena (…)

Hor hiru kontzeptu honeek dagoz agirian:

- Tema1: Bertsolari Txapelketa Nagusiaren laugarren final laurena
- Rema1: Uztaritzen jokatu da asteburuan
- Galdegaia: Uztaritzen

Temea remearen atzetik egoanarren, ez dau emoten perpausa txarto-edo dagoanik taxuturik, baina ordena horretan bertan hobetu leiteke orraztu batzuk eginda (aukera bi):

- Uztaritzen jokatu da asteburu HONETAN Bertsolari Txapelketa Nagusia_, laugarren final laurena (…)
- **Asteburu honetan,** Uztaritzen jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusia_, laugarren final laurena (…)

Titulua irakurrita irakurle askok ez dakie zelako lehiaketaren gainean diharduan idazleak. Igual dihardu esku partida baten gainean, pala partida baten gainean… Zalantza hori ezabatzeko, ez ete dago hobeto honan emonda lehenengo perpausa, temea dauala aurrerengo?:

Bertsolari Txapelketa Nagusia, laugarren final laurena, Uztaritzen jokatu da asteburu honetan (…)

Agertu dogula zein dan temea (*Bertsolari Txapelketa Nagusiaren laugarren final laurena*) ebagi egin dogu bitan azken aldaeran. Pasa gaitezan bigarren perpausera:

(…) eta bertan 669 puntugaz zemendiaren 7an Bergaran jokatuko dan finalaurrekoetarako

txartela eskuratu dau Beñat Gaztelumendi donostiarrak.

Atera daigun perpaus horren oinarrizko eskemea:

eta bertan 669 puntugaz (…) txartela eskuratu dau Beñat Gaztelumendi donostiarrak.

Perpaus horretan, alde batera itzita (*bertan 669 puntugaz*), honetara geratzen da tema-rema bikotea:

- Tema2: Beñat Gaztelumendi donostiarrak.
- Rema2: (…) txartela eskuratu dau

Rema2 horretan bestera ordenatu behar da informazinoa (parentesi barrukoa atzera eroanda). Hona hemen tema2-rema2 horreek osorik:

Beñat Gaztelumendi donostiarrak [txartela eskuratu dau (zemendiaren 7an Bergaran jokatuko dan finalaurrekoetarako)].

Ondo erreparauz gero rema2 horri, kortxete barruan, kargutuko gara *txartela* berbea tema3-a dala eta parentesi barrukoa rema3-a:

- Tema3: txartela
- Rema3: zemendiaren 7an Bergaran jokatuko dan finalaurrekoetarako

Gura badogu egoki sekuentziau rema3 hori, honako itauna eginda lortuko dogu:

Beñat Gaztelumendik txartela eskuratu dau NORAKO

Hona hemen erantzuna:

Beñat Gaztelumendik txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako

Ikusi daigun zelako progresino tematikoa dauan perpaus horrek:

- Tema2: Beñat Gaztelumendik
- Rema2: txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako
- Tema3: txartela
- Rema3: finalaurrekoetarako

Orain erantsi deiogun gainerako informazinoa, parentesi barruan itzi doguna (*zemendiaren 7an Bergaran jokatuko dan*):

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau **zemendiaren 7an Bergaran jokatuko dan** finalaurrekoetarako.

Baina agirian dago baltzezko informazinoa enbarazuan dagoala, traba egiten dau dagoan lekuan. Osagarri hori eroan behar da gune atzera (*finalaurrekoetarako*). Zelako formatoan emon behar dogun informazino hori gunearen atzean, hortxe dago untzea. Estrategia ona erabili behar da. Hona hemen urtenbide batzuk:

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, zemendiaren 7an Bergaran jokatuko danENERAKO

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, Bergaran jokatuko danENERAKO, **zemendiaren 7an**

- Zeinismoa:

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, ZEINA jokatu daN zemendiaren 7an, Bergaran.

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, ZEINA jokatu BAITa zemendiaren 7an, Bergaran.

- Beronismoa:

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, BERAU jokatu dala(RIK) zemendiaren 7an, Bergaran.

- *-elarik* atzizkia

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, Bergaran jokatu dala(RIK) zemendiaren 7an.

Sinpleago be adierazo leiteke:

Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, Bergararako,. zemendiaren 7an

Bestalde, alde batera itzi dogu información bat, *bertan 669 puntugaz*, zeina adierazo leitekean bestera be: *bertan 669 puntu lortuta* (edo *bertan 669 puntu lortu dauala(rik)*). Bigarren perpausa, osorik, honan geratuko litzateke:

(…) eta **bertan 669 puntugaz** Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, Bergararako, zemendiaren 7an.

(…) eta **bertan 669 puntu lotuta** Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, Bergararako, zemendiaren 7an.

(…) eta **bertan 669 puntu lortu dauala(rik)** Beñat Gaztelumendi donostiarrak txartela eskuratu dau finalaurrekoetarako, Bergararako, zemendiaren 7an.

1.4. 4. testua

Zinebiren Ohorezko Mikeldi saria Jeanne Moreu frantziarrarentzat

-**Zinebi** datorren zemendiaren 23an hasiko da René Vautier zinegile frantziarrari eginiko omenaldiagaz eta zemendiaren 28an amaituko da Jeanne Moreau aktoreari, nouvelle vagueko musetako bat eta 60ko eta 70eko hamarkadaetako zinema europarreko arpegi ezagunetako bat izan zanari Ohorezko Mikeldi saria emonaz.

Titulua, gura izanez gero, honan hobeto, guk uste:

ZinebiK Ohorezko Mikeldi saria (emango dio) Jeanne Moreu frantziarraRI

Testuari heldurik, tematik bertatik (***Zinebi***) hasten da, gainerako guztia dalarik remea. Azkenengo honetan artaziak sartu behar dira, ondo sekuentziatzeko informazinoa. Hona hemen eginiko lehenengo orraztualdia lehenengo zatiari:

Zinebi datorren zemendiaren 23an hasiko da, René Vautier zinegile frantziarrari **omenaldia eginEZ** eta (…)

Honan hobeto:

Zinebi datorren zemendiaren 23an hasiko da, **omenaldia eginEZ** René Vautier zinegile frantziarrari eta (…)

Goazen bigarren zatira

(…) eta zemendiaren 28an amaituko da Jeanne Moreau aktoreari, nouvelle vagueko musetako bat eta 60ko eta 70eko hamarkadaetako zinema europarreko arpegi ezagunetako bat izan zanari Ohorezko Mikeldi saria emonaz.

Egin deiogun orraztualdi bat:

(…) eta zemendiaren 28an amaituko da **Ohorezko Mikeldi saria emonaz** Jeanne Moreau aktoreari, nouvelle vagueko musetako bat eta 60ko eta 70eko hamarkadetako zinema europarreko arpegi ezagunetako bat izan zanari.

Orain beste orraztualdi bi:

(…) eta zemendiaren 28an amaituko da Ohorezko Mikeldi saria emonaz Jeanne Moreau aktoreari, nouvelle vagueko musetako bat eta 60ko eta 70eko hamarkadetako zinema europarreko arpegi ezagunetako bat izan **zanA**.

(…) eta zemendiaren 28an amaituko da Ohorezko Mikeldi saria emonaz Jeanne Moreau aktoreari, nouvelle vagueko musetako bat eta arpegi ezagunetako bat izan zana **60ko eta 70eko hamarkadetako zinema europarreAN**.

1.5. 5. testua

'Errazetak' Andoni Lupiañez eta Eneko Atxaren eskutik

Umeak suetera erakarri, suetea jolastoki eta familiaren topagune bihurtu, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emonak hobetu eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatzeko asmoz sortutako liburua da **'Errazetak'**.

Tituluak tematzat dauka ***'Errazetak'*** eta rematzat gainerakoa. Testuan (perpaus bakarrez osatua) osagai batek, alde batetik, egin behar dau loturea tituluagaz eta, bestetik, beraren gainean jardun behar du gainerako informazinoak. Zein da elementu hori? Azkenengo berbea (***Errazetak***). Beraz, berba horixe da temea, eta gainerako informazinoa, remea. Aplikatu deiogun progresino tematikoaren eskemea (lehenen, temea; bigarren, remea):

`**Errazetak**' umeak suetera erakarri, suetea jolastoki eta familiaren topagune bihurtu, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emonak hobetu eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatzeko asmoz sortutako liburua da.

`***Errazetak***' eta *liburua* osagaiak alkarri lotuta dagoz esanahiz, eta batera joan behar dira. Horren arabera, oinarrizko eskema bi sortu leitekez abiapuntutzat:

- `**Errazetak**' liburua ZERTARAKO ASMOZ DAGO SORTUTA
- `**Errazetak**' liburua da eta ZERTARAKO ASMOZ DAGO SORTUTA

Tituluan ez jakunez esaten zer dan '*Errazetak*', begitantzen jaku eskema biok dagozala ondo. Lehenengoa hasiko gara garatzen:

(1) `**Errazetak**' *liburua* umeak suetera erakarri, suetea jolastoki eta familiaren topagune bihurtu, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emonak hobetu eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatzeko asmoz DAGO sortuta.

Temea laburra dalarik, remea lukainka ederra da, bertan atzen lekuan dagoala informazino nagusia, aditza (*dago sortuta* edo *sortuta dago*); eta beraz, nekez eta penaz irakurten da perpaus osoa. Zer egin? Ahalik gehien eroan aurrera aditza (eta beragaz batera *asmoz*):

(1a) `**Errazetak**' liburua umeak suetera erakarTEKO ASMOZ DAGO SORTUTA, suetea jolastoki eta familiaren topagune bihurtZEKO ASMOZ, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emonak hobetu eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatzeko asmoz.

ASMOZ hiru bider dago errepikaurik, eta horrek zatartu egiten dau irakurketea. Bat bakarra itzi leiteke, hasikerakoa:

(1b) `**Errazetak**' liburua umeak suetera erakarTEKO ASMOZ DAGO SORTUTA, suetea jolastoki eta familiaren topagune bihurtZEKO, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emonak hobetu eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatzeko.

Ez dago txarto; izan be, normal irakurten da, baina normalago irakurri leiteke, errezago, beste bide batetik jota:

(1c) `**Errazetak**' liburuaREN BIDEZ GURA DA umeak suetera erakarri, suetea jolastoki eta familiaren topagune bihurtu, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emonak hobetu eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatu.

Barruko aldean orraztu batzuk egin ahal jakoz (aditzak aurreratu):

(1d) `**Errazetak**' liburuaren bidez nahi da suetera erakarri **umeak**, suetea jolastoki **bihurtu** eta topagune **familiarentzat**, hartu-emonak hobetu **guraso eta seme-alaben arteAN** eta, bide batez bertoko kalidadeko produktuak sustatu.

(1e) `**Errazetak**' liburuaren bidez nahi da **erakarri** umeak suetera, **bihurtu** suetea jolastoki eta topagune familiarentzat, **hobetu** hartu-emonak guraso eta seme-alaben artean eta, bide batez **sustatu** bertoko kalidadeko produktuak.

Puntuazinoan aldatu batzuk eginez gero, honan geratzen da:

(1f) `**Errazetak**' liburuaren bidez nahi da **erakarri** umeak suetera; **bihurtu** suetea jolastoki eta topagune familiarentzat; **hobetu** hartu-emonak guraso eta seme-alaben artean; eta, bide batez, **sustatu** bertoko kalidadeko produktuak.

Beste estrategia orokor bi be badagoz errez irakurteko. Hasi gaitezan lehenengotik:

(1g) `**Errazetak**' liburuaK ASMOTZAT DAUKA erakarri umeak suetera; bihurtu suetea jolastoki eta topagune familiarentzat; hobetu hartu-emonak guraso eta seme-alaben artean; eta, bide batez, sustatu bertoko kalidadeko produktuak.

Eta bigarrena erabiliz gero:

(1h) `**Errazetak**' liburuaK GURA DAU ASMOTZAT erakarri umeak suetera; bihurtu suetea jolastoki eta topagune familiarentzat; hobetu hartu-emonak guraso eta seme-alaben artean; eta, bide batez, sustatu bertoko kalidadeko produktuak.

Gorago, ia hasikeran, eskema bi aitatu ditugu, eta lehenengoa bakarrik garatu dogu. Orain toketan jaku bigarrena garatzea:

- `**Errazetak**' liburua da eta ZERTARAKO ASMOZ DAGO SORTUTA

Hona hemen, besteak beste, eskema horren garapen bat:

(1i) `**Errazetak**' liburua da eta SORTUTA DAGO ASMOTZAT DAUALA erakarri umeak suetera; bihurtu suetea jolastoki eta topagune familiarentzat; hobetu hartu-emonak guraso eta seme-alaben artean; eta, bide batez, sustatu bertoko kalidadeko produktuak.

Gure ustez, "-ren bidez" lortzen dira emoitzarik onenak, (1f) dogula guren.

1.6. 6.testua

Joxerra Garziak jasoko dau 2009ko Abbadia Saria

Joxerra Garzia kazetari, idazle eta unibersidade-irakasleak jasoko dau 2009ko Abbadia Saria. Urtero, euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten daben personaren edo alkarteren bati emoten deutso Gipuzkoako Foru Aldundiak sari hau. Domina bat eta 12.100 euro jasoko ditu Garziak.

Titulua alde batera itzita (ondo dago), oratu deiogun testuko lehenengo perpausari (zeina artez dagoan, gure ustez) eta ikusi daigun bertan zer dan temea eta zer remea:

Joxerra Garzia kazetari, idazle eta unibersidade-irakasleak jasoko dau 2009ko Abbadia Saria.

- Tema1: Joxerra Garzia kazetari, idazle eta unibersidade-irakasleak
- Rema1: jasoko dau 2009ko Abbadia Saria.

Eta bigarren perpausean

Urtero, euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten daben personaren edo alkarteren bati emoten deutso Gipuzkoako Foru Aldundiak sari hau.

zein da temea eta zein remea? Bigarren perpauseko temeak lotura egin behar dau lehenengo perpauseko remeagaz:



Zein da tema2 hori? Ondo erreparauz gero perpausari, kargutuko gara "*sari hau*" dala (horren gainean egiten da berba bigarren perpausean, eta berak egiten dau kohesinogile lehenengo perpausagaz). Horrenbestez, gainerako informazinoa litzateke rema2-a:

- Tema2: Sari hau
- Rema2: gainerako informazinoa

Rema2 hori ondo sekuentziau behar da. Hona hemen zer eskema daukan:

[Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero emoten deutso NORI]

Eskema horretatik aterata, hona hemen tema-remok:

- Tema3: Gipuzkoako Foru Aldundiak
- Rema3: urtero emoten deutso NORI

Eskema hori honan hezurmaminduko litzateke:

[Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten daben personaren edo alkarteren bati]

Bigarren perpausa, osoa, honan geratuko litzateke

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten daben personaren edo alkarteren bati]

- Tema2: Sari hau
- Rema2: Gipuzkoako Foru Aldundiak emoten deutso (…) elkarteren bati
- Tema3: Gipuzkoako Foru Aldundiak
- Rema3: emoten deutso (…) elkarteren bati

Rema3 horren barruan dagoz ondorengo rema4-tema4 honeek:

- Rema4: euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, (…) jarduten dabe
- Tema4: personaren edo alkarteren bati

Baina tema4 eta rema4 horreek atzekoz aurrera dagoz, alderantzizko ordenan, progresino tematiko txarra egiten. Lehenengo, tema4-a ipini behar dogu eta, gero, rema4-a. Baina hori egiteko, pikutara bota behar dogu rema4-an erlatiboa (*Euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten daben*). Horretarako, ordainetan erabili behar da, besteak beste, erlatibo apositiboa (*-ena*), eta kokau behar da gunearen (*personaren edo alkarteren bati*) atzean:

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, **euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten dabenA**]

Rema4an, baltzezko informazinoan, honako tema-remak dagoz:

- Tema5 (Azken berban ***-dabenA***- artikuluak (-***A***) ordezkatzen du tema5: persona edo elkarte bat)
- Rema5 (**euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde lanean jarduten dabe**)

Normal-normal eta berez-berez irakurri gura badogu, aditza eta erlatibo apositiboa aurreratu beharra dagoz (*jarduten dabenA*), lagun dabezela *lanean* berbea:

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, **lanean jarduten dabenA** euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde]

Baliabideetan, erlatibo apositiboaren ordez erabili leiteke zeinismoa:

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, ZEINTZUEK lanean jarduten dabeN euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde]

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, ZEINTZUEK lanean jarduten BAITabe euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde]

Edozein modutan, ez gagoz gustoregi ez erlatibo apositiboagaz ez zeinismoagaz. Bestera pentsetan dogu. Guk ezagutu ditugun hiztunik onenak, erlatiboak pikutara botako leukee, baina ordainetan perpaus kausala erabili:

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, lanean jarduteAGATIK euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde]

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, lanean jarduteARREN euskerearen normalizazinoaren, eta batez be, erabilerearen alde]

Harako ezagutu nituan hiztun bikain hareek *aldean* barik erabiliko leukee helburuzko perpausa:

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, lanean jarduteagaitik euskerea normalizaTZEKO, eta batez be, erabilTZEKO]

Sari hau [Gipuzkoako Foru Aldundiak] [urtero emoten deutso personaren edo alkarteren bati, lanean jardutearren euskerea normalizaTZEKO, eta batez be, erabilTZEKO]

Geratzen jaku hirugarren perpausa, zeina ontzat emon leikean. Ahozkoan honan be arrunta litzateke, argi geratu dadin perpausaren norabidea:

(Garziak) jasoko ditu domina bat eta 12.100 euro

1.7. 7. testua lar luzea-eta, atzera

Euskara zerbitzuak batuz, gida sortu dau Mankomunitateak

Herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak batzen dituen *Emon pausoa* gida kaleratu dau Durangoko Merindadeko Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzuak. Horren baitan dagoz Durango, Elorrio, Zalibar, Atxondo, Iurreta, Abadiño, Izurtza, eta Mañaria. Azaldu dabenez, Amankomunazgoko herrietan euskara ikasteko bidea aukeratzen lagunduko dau gida honek.

Hasteko, eta alde batera lagata titulua (bertan *Mankomunitatea* dago tematzat) eta oratuta testuari berari, hona hemen lehenengo perpausa:

> Herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak batzen dituen *Emon pausoa* gida kaleratu dau Durangoko Merindadeko Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzuak.

Perpaus horretan be tituluko osagaia bera dago tematzat, baina zabalago, puztuago (*Durangoko Merindadeko Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzuak*). Egin daigun perpaus horren progresino tematiko egokia, lortu beharrezkoa (izan be, atzekoz aurrera dago testuan):



- Tema1: Durangoko Merindadeko Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzuak
- Rema1: Herriz herri (…) edo ikastaro motak batzen dituen *Emon pausoa* gida kaleratu dau
- Tema2: *Emon pausoa* gida
- Rema2: Herriz herri (…) edo ikastaro motak batzen dituen

Hasiz gero tema1-rema2 horreek hezurmamintzen, remearen mamina bakarrik erabilita:

> [Durangoko Merindadeko Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzuak] [*Emon pausoa* gida kaleratu dau (…)]

Ikusten dogunez, tema2-ak (*Emon pausoa* gida) aurretik eukan informazinoa (rema2a) atzera pasa dogu, parentesi barruan ipinita).

Luzetxua da subjektua (tema1-a), azkenengo lekuan daualarik informazino gunea (*Euskara Zerbitzuak*). Arazo hori sahiesteko, eta aldi berean progresino tematiko hobean emoteko subjektua, ebagi daigun eta sortu aposizinoak:

- Durangoko Merindadeko AmankomunazgoaK, BERTAKO Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau (…)
- Durangoko Merindadeko AmankomunazgoaK, HANGO Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau (…)
- Durangoko Merindadeko AmankomunazgoaK, Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau (…)

Hiru aukerotan hirugarrena dago ondoen, guk uste (hau da, *BERTAKO* edo *HANGO* barik be ondo ulertzen da-eta).

Ondoren, askatu daigun tema2-a eta rema2-aren marapiloa:

- Tema2: Emon pausoa gida
- Rema2: Herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak batzen ditue

Badakigu jatorriz tema-remok testuan ordena egokian dagozala eta guk ipini behar ditugu osterantzekoan. Rema2 horren barruan erlatibo bi dagoz (*-en*), alperrik egon be. Hasi gaitezan azken erlatiboa kenduz, erlatibo apositiboa erabilita (*-ena*):

> Durangoko Merindadeko AmankomunazgoaK, (bertako) Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau, **herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak batzen dituenA**.

Hor aposizinoa barik hobeto dago helburuzko perpausa:

> Durangoko Merindadeko AmankomunazgoaK, Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau, **herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak baTZEKO**.

Menderagailua (*-(t)zeko*) lar urrun egiten da; bestela esateko, atzen informazinoak progresino tematiko txarra dauka, ez dago ondo sekuentziauta, eta horrexegaitik irakurten da penaz. Holakoetan, ahozkoari jarraiki eta idatzizko tradizinoari, aurrera eroaten dira aditza eta menderagailua (**baTZEKO**).

> Durangoko Merindadeko AmankomunazgoaK, Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau, **BATZEKO herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak**.

Erabilera horren alde (ZERTARAKO sintagmea aditzetik bertatik hasita, lagun dauala -T(Z)EKO atzizkia), hona hemen hamar adibide, idatzizko tradizinokoak, bost idazle handik erabilita:

1.7.1. J. A. Mogel

Ez dogu etxetik irteten ezeren bila; usoak hazten ditugu hemen, ez geuk jateko, ezpada [eroaTEKO hartu-emona daukagun handiki edo abadeen etxera] (*Peru Abarka*, La Gran Enciclopedia Vasca, J. A. de Moguel, 66or.)

- (…) neskatila honek atzeratu zuen gorputza, baina bai prestatu bere besoa [emaTEKO belarrondo hain sendo eta zolia], zeinda ikaraz eta uste bagako esku ezartea, jasu zan behera; (*Peru Abarka*, La Gran Enciclopedia Vasca, J. A. de Moguel, 68or.)

1.7.2. Axular

- Gimnopista zerizten jende batzuek hain gaitzesten alferkeria, ezen beti ere, afalaintzinean deitzen baitzituzten persona gazteak berega, [jakiTEKO ea zertan iragan zuten eguna], (*Gero*, Aita L. Villasantek atondua, Jakin,1976, 31or.)

-Likurgoak [erakusTEKO Lazedemoniakoei zein indar handi zuen usantzak], hartu zituen bi xakur gazte, bi orkume ama batenak, (*Gero*, Aita L. Villasantek atondua, Jakin,1976, 95or.)

1.7.3. Tartas

- Pelozidaz errege handi batek bere lepoan behera egun oroz anpolla bat ekartzen zuen urkaturik, bere aintzineko errege hilaren hezurretarik errautsez beterik, [oroiTZEKO hura bezala lur zela eta errauts, eta har bezala lurtu eta erraustu behar zuela. (*Sugearen errautsa*, Tartas, Inazio Mujika Iraolak atondua, Alberdania, 33or.)

- Mundua mundo deno, begi bakoitz izanen zara punizione justotan, [frogaTZEKO zure abarizia izurri bat dela, (*Sugearen errautsa*, Tartas, Inazio Mujika Iraolak atondua, Alberdania, 83or.)

1.7.4. B. Agirre

- Egin zuen asko ahalegina [ateraTZEKO Phryne heriotzaren pena gabe]; (…) (*Arpoi baten eran*, Tartas, Inazio Mujika Iraolak atondua, Alberdania, 57or.)

- Baina ez zitzaion honela gertatu Tobias gazteari, beldur bazen ere [ezkonTZEKO Sararekin]. (*Arpoi baten eran*, Tartas, Inazio Mujika Iraolak atondua, Alberdania, 57or.)

1.7.5. Fr. Mateo de Zabala

- Ez jatzue aginduten batuTEKO ejerzitu handiak, aurkituTEKO ondasun handiak honeei pagatuTEKO; ez iraulTEKO uriak, irabazTEKO gazteluak, hilTEKO gizonak. (*Aita Mateoren sermoiak (I)*, Fr. Luis Villasantek atondua, Euskaltzaindia, 30or.)

Bada beste estrategia bat be, erakuslea ipinita aurrean:

> Durangoko Merindadeko Amankomunazgoak, Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau, **bertan/han** BATZEKO herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak.

Azken zatiko informazinoa erabili leiteke progresino tematiko hobean, elementuak egokiago sekuentziaurik:

> Durangoko Merindadeko Amankomunazgoak, Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau, (bertan/han) batzeko euskara zerbitzuak edo ikastaro motak, **herriz herri eskaintzen ditueenAK**.

Albo batera itzi dogu erlatiboa (*-en*), eta ordainetan erlatibo apositiboa (*-ena*) erabili dogu, atzen lekuan erabili be. Baina badago beste estrategia bat ezin hobea, zehar-galderea erabilita (eta gainera, *eta* menderagailua eta aditza jokatuta):

> Durangoko Merindadeko Amankomunazgoak, Euskara Zerbitzuak, *Emon pausoa* gida kaleratu dau, ETA (bertan/han) batuta DAGOZ ZEINTZUK euskara zerbitzu edo ikastaro mota eskaintzen ditueen.

Gertzen jakuz beste perpaus bi azterkizun:

> Horren baitan dagoz Durango, Elorrio, Zalibar, Atxondo, Iurreta, Abadiño, Izurtza, eta Mañaria.

> Azaldu dabenez, Amankomunazgoko herrietan euskara ikasteko bidea aukeratzen lagunduko dau gida honek.

Lehenengoa ondo dago; bigarrenean orraztu batzuk egin behar dira. Temea (*gida honek*) atzen lekuan dago eta, dakigunez, lehenen ipini behar dogu:

- Azaldu dabenez, **gida honek** Amankomunazgoko herrietan euskara ikasteko bidea aukeratzen lagunduko dau.
- Azaldu dabenez, gida honek bidea aukeratzen lagunduko dau euskara ikasteko Amankomunazgoko herrietan.

Azken perpaus hori bikain dago progresino tematikoaren aldetik:

- T1: gida honek
- R1: bidea aukeratzen lagunduko dau euskara ikasteko Amankomunazgoko herrietan.
- T2: bidea
- R2: aukeratzen lagunduko dau euskara ikasteko Amankomunazgoko herrietan

1.8. 8. testua

‘Bidaiariaren Txokoa’ ekimenak munduko musikak dakarz

Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreratzeko helburua dauen 'Bidaiariaren Txokoa' programearen seigarren edizinoak, zemendian zehar munduko musikak eskainiko ditu.

Tituluan argi dagoz zein dan temea eta zein remea (eta ordena egokian dagoz):

- Tema1: ‘Bidaiariaren Txokoa’ ekimenak
- Rema1: munduko musikak dakarz

Testuari jagokonez, agirian dago informazinoa ardaztuta dagoala *'Bidaiariaren Txokoa' programa*n, berau dalarik, batetik, testuko temea eta, bestetik, lotura-osagaia tituluagaz. Hona hemen zelako eskemea lortu behar dauan progresino tematikoak:

- Tema2: 'Bidaiariaren Txokoa' programaK
- Rema2a: Herrialde desbardinetako kultura, oitura eta jentea hurreratzeko helburua dau
- Rema2b: seigarren edizinoaN
- Rema2c: zemendian zehar munduko musikak eskainiko ditu

Eskema hori alderatuz gero jatorrizko testuagaz, ikusten dogu NORK sintagmatik (*'Bidaiariaren Txokoa' programearen seigarren edizinoak*) bi atera ditugula (*'Bidaiariaren Txokoa' programaK* eta *seigarren edizinoaN*); bestalde, rema2 horretan (hiru zati) erabiliko dogu, hasteko, erlatibo apositiboa (*-ena*). Hona hemen zelan geratzen dan testua:

(a) 'Bidaiariaren Txokoa' programaK, Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreratzeko **helburua dauaNA**, (BERE) seigarren edizinoaN, zemendian zehar munduko musikak eskainiko ditu

(b) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, **helburua dauaNA** Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreratzeko, (bere) seigarren edizinoan, zemendian zehar munduko musikak eskainiko ditu

Erabiliz gero erlatibo apositiboa barik (*-ena*) zeinismoa (*zein bait-/-en*), hona hemen emoitzak (abiatuta (b) aldaeratik):

(c) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, ZEINAK helburua dauaN Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreratzeko, (bere) seigarren edizinoan, zemendian zehar munduko musikak eskainiko ditu

(d) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, ZEINAK helburua BAITau Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreratzeko, (bere) seigarren edizinoan, zemendian zehar munduko musikak eskainiko ditu

Errezago komunikatzeko, neke gitxiagoz irakurteko, operazino bi egin leitekez:

(e) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, zeinak helburua baitau Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreratzeko, (bere) seigarren edizinoan **munduko musikak** eskainiko ditu **zemendian zehar**

(f) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, zeinak GURA dauaN Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea hurreraTU, (bere) seigarren edizinoan **eskainiko ditu** munduko musikak zemendian zehar

(g) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, zeinak nahi dauan hurreraTU **Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea**, (bere) seigarren edizinoan eskainiko ditu munduko musikak zemendian zehar

(h) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, zeinak gura dauan hurreraTU DAITEZELA **Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea**, (bere) seigarren edizinoan eskainiko ditu munduko musikak zemendian zehar

(i) 'Bidaiariaren Txokoa' programak, zeinak gura dauan HELBURUTZAT hurreraTU DAITEZELA **Herrialde desbardinetako kultura, ohitura eta jentea**, (bere) seigarren edizinoan eskainiko ditu munduko musikak zemendian zehar

Horra, irakurlea, hainbat era zelan hobeto idatzi testutxua.

2. Konklusinoak

Ezin esan konklusino onik atera leitekeanik artezturiko idatzietatik. Zenbateraino ete dira izan testuak?

3. Bibliografia

Alberdi Larizgoitia Xabier; Sarasola Errazkin Ibon. (2001). *Euskal estilo libururantz*. EHU.

Alberdi, X.; Garcia, J. (1996). *<<Zein (…) bait-/-n>> egitura*, in I. Zabala (koord.) (1996).

Aznar Eduardo; Cros Anna; Quintana Lluis. (1991). *Coherencia textual y lectura*. Barcelona, ICE/HORSORI.

Beaugrande, Robert-Alain de; Wolfgang Ulrich Dressler. (1972). *Introducción a la linguistica del texto*, Barcelona, Ariel, 1997.

Brown G., Yule G. (1993). *Analisis del discurso*. Visor Libros.

Bosque, I.; Gutiérrez-Rexach, J. (2009) *Fundamentos de sintaxis formal*. Madrid. Akal
Calsamiglia, Helena; Amparo Tusón. (1999). *Las cosa del decir*, Barcelona, Ariel.
Casado Manuel (1993). *Introducción a la gramática del texto del español*. Madrid. Arcos/Libros.S.L.
Euskaltzaindia. (1987). *Euskal gramatika. Lehen urratsak-I (Eraskina)*. Bilbo. Euskaltzaindia.
Euskaltzaindia. (1993). *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo. Euskaltzaindia.
Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V* (Mendeko Perpausak-I). Euskaltzaindia. Bilbo.
Euskaltzaindia-Jagon Saila. (2008). *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo. Euskaltzaindia.
Goenaga Patxi (1980. 2. edizioa). *Gramatika bideetan*. Donostia. Donostia
Hernanz M.L.; Brucart J.M. (1987). *La sintaxis.* Barcelona. Critica
Hidalgo, B. (2002). *Hitzen ordena esaldian.* Senez 25. zb.
Hidalgo, B. **(**2006). *Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi.* Hizpide 59. zb.
Kaltzakorta Mentxaka, M. (1997). *Norbaiten edo zerbaiten berri ematen*. Administrazioa Euskaraz, 15, 16-17.
Kaltzakorta Mentxaka, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*: Bilbo. Udako Euskal Unibertsitatea.
Mitxelena, K. (1992). *Orotariko Euskal Hiztegia (V)*. Euskaltzaindia.
Moeschler, Jacques eta Reboul, Anne. (1999). *Diccionario enciclopédico de pragmática*. Arrecife Producciones, Madrid.
Larringan, L. M. (1998). << *Testuaren analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean*>> in I. Idiazabal/L.M. Larringan *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratze baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. EHU Arabako Foru Aldundia. Gasteiz-Vitoria.
Larringan, L.M. (2000). *Hizkuntzaren kalitatea*. Ikastaria 11 (Eusko Ikaskuntza). 65-75.
Larringan, L.M.; Idiazabal, I. (2005). *Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologikoa*. Ikastaria 14 (Eusko ikaskuntza). 9-29.
Osa Unamuno Eusebio (1990). *Euskararen hitzordena*. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.
Padilla X.A. (2005). *Pragmática del orden de palabras*. Alicante. Univ. de Alicante.
Portolés J. (2004). *Pragmática para hispanistas*. Edit. Sintesis.
Rodríguez T.M. (2005). *Manuel de sintaxis del español*. Madrid. Castalia.
Rubio, J. (2002). *Euskararen garabideak.* Alberdania.
Sainz Matilde. (2001). *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*. Donostia. Erein.
Simone Raffaele. (1993). *Fundamentos de Linguística*. Barcelona. Ariel Linguística.
Zabala, Igone (koord.). (1996). *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
Zagona Karen. (2006). *Sintaxis generativa del español*. Madrid. Visor.